

# 1.PROPOSAMENA POLARIS

Egunero jendea desagertzen da, eta haien familiek ezin dute ezer egin beraien bizitzak salbatzeko edo aurkitzeko. Demagun ama edo aita bat zarela eta zeure semearekin oporretan zaude, bat batean zure semea ez duzu ikusten, Nola aurkitu ahal duzu?. Txikia da, ez dauka telefonorik, bakarrik dago, orduan, geure produktu bikainarekin arazo hori konpondu ahal dugu. Geure produktua lepoko bat da, lepoko honek lokalizatzailerik bat dauka bluetooth bidez funtzionatzen dena, bluetootha integratuta dago lepoko apaingarri bezala. Honek emango dizu bere lokalizazio zehatza eta automatikoki aurkitu ahal duzu zeure seme edo alaba. Nagusiak erabili ahal dute ere. Botoi bat sakatzean, poliziarekin edo ospitalearekin konektatzen da lepokoa, hala nola beraien familiarrei. Produktu honek gizartearentzat onuragarria izango da:

1. Erantzun azkarra larrialdiei deitzeko, poliziarri edo familiarrei. Egoera kritikoetan laguntza eskatzeko laguntza azkarra eta segurua.
2. Erantzun azkarra larrialdiei. Larrialdi-zerbitzuak leku azkarrenera iristea ahalbidetzen du, eta hori funtsezkoa izango da biktimaren bizitza ziurtatzeko.
3. Norberaren segurtasuna areagotzea. Bezeroak seguruago sentituko dira arrisku bat izanez gero, berehala laguntza eskatzeko ahalmenarekin.
4. Kriminalitatearen aurkako babesa. Delituaren gertaera errazten du, horrek laguntzen digu erasotzailea arrapatzea berriro ez gertatzeko.
5. Pertsona ahulentzako laguntza. Adineko pertsoneri, ezinduei edo arrisku-egoeretan daudenei mesede egiten die, segurtasun-sare bat eskainiz.
6. Lasaitasuna eskaintze digu geure familiarren segurtasuna ziurtatzeko
7. Autonomia sustatzea. Jendeak modu independenteagoan bizitzeko aukera ematen du, laguntza botoi bat besterik ez dagoela jakinda.
8. Bizitzak salbatzeko potentziala. Larrialdi medikoetan, erantzun azkarra izan daiteke bizitzaren eta heriotzaren arteko aldea.

**9.** Etxeko indarkeriaren prebentzioa: Etxeko tratu txarren kasuetan laguntza bilatzeko baliabideak eskuratzea.

**10.** Trafiko-istiluetan laguntza: istripuen jakinarazpen azkarra errazten du, salbamendu zerbitzuen erantzuna bizkortzen lagunduz.

**11.** Gertaera katastrofikoetan laguntza: lurrikarak, uholdeak edo bestelako hondamendi naturalak eragindako pertsonen laguntza lortzea errazten du.

**12.** Laneko segurtasuna optimizatzen du: arrisku-inguruneetan lan egiten duten langileek azkar jaso dezakete laguntza lan-istripuen egoeretan.

Produktuaren helburu nagusia pertsonen segurtasuna bermatzea da eta egunero erabiltzea kezkatu gabe ea ahaztu zaizun ala ez etxetik ateratzean. Horretarako nahi dugu lepokoa urperagarria izatea lepokoa ez galtzeko, honek hondartzara eramateko edo dutxa bat hartzeko. Hori posiblea izateko lepokoak urrezkoak edo zilarrezkoak izan behar dira. Diseinuari dagokionez ere prezioa aldatzen da tamaina, materiala eta duen apaintzen araberaz. Hainbat diseinu ditugu, baina pertsonalizatzeko aukera dago. Kateak eta apaingarriak aparte saltzen dira. Lepoko hauek egiteko beharrezkoa da bluetooth chip bat apingarrietan sartzen dena.